

## **KUDEAKETAKO BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK JASOTZEKO GALDETEGIA**

**IZENBURUA:** LAN MUNDUAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO EDUKI DIGITALAK

**HELBURUAK:** Arlo sozioekonomikoan berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa landu eta sustatzea eragin-eremu ezberdinetan.

**ENTITATE ARDURADUNA:** Artez Euskara Zerbitzua



**Emakumezko langileen kopurua:** 8 **Guztiraren gaineko portzentajea:** %80

**Gizonezko langileen kopurua:** 2 **Guztiraren gaineko portzentajea:** %20

**WEBGUNEA:** [www.artez.eus](http://www.artez.eus)

**PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK:**

**HASIERA EGUNA:** 2019-03-01

**HARREMANETARAKO PERTSONA** Leire Solozabal

**HARREMANETARAKO TELEFONOA:** 94 448 0000

**HARREMANETARAKO E-MAILA:** [Lsolozabal@artez.eus](mailto:Lsolozabal@artez.eus)

**AZALPENA:** Erakundeetan berdintasuna sustatzeko sentsibilizazio ikastaroa da martxan dugun proiektu hau. Berrikuntza eta baliabide digitalen ildotik, berdintasunean eragina duten gai ezberdinetan oinarritutako online ikastaroa: hizkuntza ez sexistaren erabilera, kontziliazioa eta lan mundua, ...

Ikastaroaren edukia gai ezberdinetan sakontzeko egituratuta dago. Edukien ekoizpen prozesuak fase ezberdinak ditu:

- 1. Dokumentatze prozesua eta gidoiaren sorkuntza:** Gaiari buruz ondo dokumentatu, egitura bat diseinatu eta horren arabera gidoia garatzen dugu.

2. **Eduki eta baliabideen sorkuntza eta garapena:** Gidoian jasotakoa eduki dinamiko eta interaktiboetan islatzen dugu, beti ere partaideen jarrera proaktiboa sustatu eta edukiaren barneratze prozesua errazteko.
3. **Maketazioa:** Eduki guztia maketatu eta bateratasun bat ematen diogu, diseinatutako grafismo eta estiloarekin.
4. **Inplementazioa:** Ikastaroa @diTU-n inplementatzen dugu, Artez-en prestakuntza plataforman. Malgutasuna eta eskuragarritasuna bermatzen ditugu, edozein gailutik sartzeko diseinatuta dagoelako.
5. **Kalitate kontrola:** Prozesu osoari bukaera emateko funtzionaltasuna eta eraginkortasuna neurtzen ditugu, beharrezko proba guztiak eginez.



Proiektuaren zabalkunderako eta ezagutzera emateko tresna gisa bideo bat prestatu dugu. Bideo honetan gaiaren inguruko kokapena egin, helburuak zehaztu eta jorratuko diren kontzeptu nagusiak aurkezten ditugu.

Helburu nagusia berdintasunaren aldeko jarrera proaktiboa sustatzea izanik, oinarrian dagoen prozesu metodologikoa da: **Hausnartu, kontzientzia hartu eta eraldatu.**

### **EMAITZAK (edo inpaktu positiboak edo ondorio negatiboen murrizketa):**

Edozein aldaketarako lehen urratsa hausnarketa da, eta hori da lan munduan berdintasuna sustatzeko eduki digital hauen bitartez lortzen duguna: sentsibilizazioa pizten dugu, ondoren gauzak ezberdin egiteko motibazioa indartuz.

Hizkuntzaren erabilera ez sexista lantzen dugun honetan, esaterako, partaideek kontzientzia hartzen dute hain barneratuta ditugun joera androzentrista eta sexistez. Komunikatzen ditugun mezuen formak zalantzatan jarri eta esateko beste modu justu eta berdina bat bilatzea lortzen dugu.

### **ALDERDI BERRITZAILEAK:**

Teknologiak ezagutza eta balioak zabaltzen laguntzen digu. Artez-en apustu sendoa egin dugu online bidezko formakuntza eta edukien diseinu eta garapenean, malgutasuna eta eskuragarritasuna bermatzen baititugu horrela.

Eduki zuzen, dinamiko eta erakargarriak sortzen ditugu, eta hauen bidez partaidetza aktiboa sustatzen dugu. Partehartzailea bere ezagutza prozesuaren protagonista bilakatzen dugu.

Guzti hau @diTU gure prestakuntza plataforma propioan inplementatzen dugu.

Berdintasunaren alde egiteko tresna berriak jarri nahi ditugun pertsonen eskura.

**ARRAKASTA-FAKTOREAK:** Artez-en balio nagusietako bat da Berdintasuna, erakundearen estrategia orokorrean txertatzen dugun balorea dela.

Proiektu hau Berdintasun lan-taldetik sortutako ekimena da. Lan-talde honetako kideak hizkuntzan, berdintasunean eta baliabide digitalen diseinu eta garapenean adituak gara, besteak beste.

Proiektuaren diseinu eta planifikazioa definituta ditugu, baita garatzeko beharrezko baliabide eta aurrekontua ere.

### **-Arrakasta-faktoreei buruzko oharrak:**

**PARTAIDETZA** (jardunbide egokiaren irismena): Proiektuaren zabalkunde prozesua hasiko dugu enpresetan. Aurreikuspena da bai lantzen ditugun Euskararen Normalizazio Planetan txertatzea, baita hortik kanpo jorratzen ditugun proiektuetan ere.

Artez-en lan egiten dugun pertsona guztiok hartu dugu parte ikastaro honetan; guztira 10 lankidek: plangintza saileko 7 kide (2 gizon eta 5 emakume), itzulpengintza saileko 2 kide (emakumeak) eta gerentziak (emakumea).

Hemendik aurrera, bezero ditugun erakundeetan zabaltzen hasi gara.

**INTEGRATUA:** Proiektua bat dator erakundearen politika eta estrategia orokorrarekin. Berdintasun Plan berriaren baitan diseinatutako ekintza zehatz bati dagokio, lan-munduan berdintasuna sustatzea helburu duena.

**TRANSFERIBILITATEA:** Berdintasuna sustatzeko eduki digital hauek edozein erakunde motari zuzenduta daude, aplikagarriak dira sektore eta eremu ezberdinetan.

**BALIABIDEAK (pertsonak eta baliabide ekonomiko/finantzario eta materialak):** adibidez, prestakuntzako gastuak, pertsonen dedikazioa; erabilitako baliabideen efikazia eta efizientzia.

Proiektuaren garapenerako baliabide ezberdinak behar izan ditugu:

**Pertsonak:** 3 izan dira proiektuaren diseinu eta ekoizpenean parte hartu duten Artzeko lankideak. Horrez gain, kanpo zerbitzua ere kontratatu dugu garapenean zehar. Lan-taldearen dedikazio aldetik, 3 hilabetetan zehar jardunaldiaren heren bat egokitu zaio proiektuari.

**Teknikoak eta ekonomikoak:** Artze-en baliabide tekniko eta ekonomikoak erabili ditugu garapenerako.

**JARDUNBIDEA EGIAZTATZEN DUEN MATERIALA:** adibidez, dokumentazioa (prozesua, prozedura, instrukzioa, hitzarmena), webgune baterako estekak, bideo bat, materialak (testuan eta beste ikus-entzunezko formatu batzuetan), etab.

<https://vimeo.com/328167119>

## CUESTIONARIO PARA RECOGER BUENAS PRÁCTICAS DE IGUALDAD EN LA GESTIÓN

**TÍTULO:**

**OBJETIVOS:**

**ENTIDAD RESPONSABLE:**

**Nº DE TRABAJADORAS:**                      **Porcentaje sobre el total:**

**Nº DE TRABAJADORES:**                      **Porcentaje sobre el total:**

**WEB:**

**OTRAS ENTIDADES PARTICIPANTES:**

**FECHA DE COMIENZO:**

**PERSONA DE CONTACTO:**

**TELEFONO DE CONTACTO:**

**EMAIL DE CONTACTO:**

**DESCRIPCIÓN:** describir en qué consiste, origen de la práctica, fases, cómo ha sido el proceso para llevarla a cabo, etc.

**RESULTADOS (o impactos positivos o reducción de efectos negativos):** por ejemplo, indicadores que estén ligados a los objetivos que persigue la práctica o del grado de cumplimiento de lo planificado; reducción de brechas de género en organización; impactos externos, impacto social, en la prestación de los servicios con perspectiva de género (clientela, sociedad, proveeduría); impactos en la gestión para la igualdad; en la cultura de la organización.

**ASPECTOS INNOVADORES:** mecanismos, procedimientos o metodologías creativas o nuevas, se plantean soluciones novedosas, creatividad en los procesos participativos o nuevas relaciones con el entorno, novedoso en la problemática que aborda, etc.

**FACTORES DE ÉXITO:** competencias del equipo del proyecto, participación de la plantilla, del público objetivo, apoyo de la alta dirección, presupuestada y recursos adecuados, planificada adecuadamente.

**-Observaciones a los factores de éxito:**

**PARTICIPACIÓN** (alcance de la buena práctica): nº o porcentaje de personas de que han participado o se han implicado en su desarrollo o implantación, y/o sobre las que ha tenido efecto / impacto real. Pueden ser personas de la organización, pero también de otros grupos de interés (clientela, de entidades proveedoras, del entorno social,...). Indicar formas en las que se prevé hacer seguimiento de su evolución en el futuro.

**INTEGRADA:** está alineada con la política y/o de estrategia de la organización; está institucionalizada; está planificada anualmente; es transversal, forma parte de un proceso, procedimiento; es continua en el tiempo; tiene un sistema de seguimiento y evaluación que permite incorporar cambios para la mejora y/o su actualización.

**TRANSFERIBILIDAD:** que pueda aplicarse a otras organizaciones de otros ámbitos, o sectores de modo que pueda repetirse con posibilidad de éxito; condiciones bajo las cuales se podría replicar en otras entidades.

**RECURSOS (personas y recursos económicos/financieros y materiales):** por ejemplo, gastos en formación, dedicación de las personas, la eficacia y eficiencia de los recursos empleados.

**MATERIAL QUE ACREDITE LA PRÁCTICA:** por ejemplo, documentación del proceso, procedimiento, instrucción, convenio, enlaces a una web, un vídeo, materiales elaborados en texto y/o en otros formatos audiovisuales, etc.